

## **Euskal literatur sistema garaikidea polisistemen teoriatik eta Harkaitz Cano idazlearen kasu azterketa**

**Tesiaren egilea:** Aiora Sampedro Alegria

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**Saila/Instituta:** Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila

**Doktorego-programa:** Literatura Konparatua eta Literatur Ikasketak

**Jakintza-arloa:** Literatura

**Tesi-zuzendaria:** Jon Batti Kortazar Uriarte

**Tesiaren laburpena:**

Doktore-tesi hau bi atal nagusitan egituratu da. Lehenean, azalpen teoriko-metodologikoa egin da, eta bigarreanean, analisi teorikorako ekarpen hori euskal literatura-sistemaren azterketari ezarri zaio, eta azkenik, eta zehatzago, Harkaitz Cano idazlearen ibilbideari.

Horretarako, esparru teorikoa Itamar Even-Zohar pentsalari israeldarrak literatura aztertzeke proposatutako polisistemen teoriarekin osatu da, hura berrirakurritu eta euskal sistemaren ezaugarri behinenetara aplikatuz. Gainera, literaturaren soziologiatik datozen beste korrante kritiko batzuekin osatu da.

Hori dela eta, gaur egun euskal literatura-sistemaren barnean aldaketak gertatzen ari direla identifikatu da, bereziki testu eta egileen kanonizazioari dagokionez. Nagusiki, euskal literatura garaikidean, instituzioak, hau da, kritikak, kultur komunikabideek edo editorialek gidatutako literatura-kanonizazioa mantentzen dela, baina merkatuaren eta kontsumitzaileen garrantzia handitu egin dela, eleaniztasunaren eraginez horiek hainbat sistematan elkarri eragiten diotelako.

Aurrekoarekin lotuta, sistema literario luzean ibilbide oparoa lortu duen idazlea aztertzearen interesagatik, Harkaitz Canoren azterketari ekin zaio azken atalean, bere literaturaren merkaturatze-bideei eta irakurleekin duen harremanari erreparatuz.

Etorkizunera begira, bideak ireki dira literatura merkantilizazioan jarriko duen kultura azterketzeko.